

## GAZTELAKO ALMIRANTEA

### I. HONDARRIBIKO SETIOA

1638.eko uztailaren 4ean, Frantzia eta Espainiaren arteko gerra zela eta, Condéprintzearen tropek Hondarribia inguratu zuten Bordeleko artzapezpikuaren agintepeko untziteria handi baten laguntzaz, setio luze bati hasiera emanaz. Hurbileko herrisketan kalte ikaragarriak sortu bazituzten ere, ez zuten hiriko harresia gainditzetik izan.

Azkenik, iraileko lehen egunetan, Gaztelako almirantea zen Velez-tarren markesa, armada boteretsu baten buru zelarik, Hondarribira hurreratu zen Jaizkibel menditik barrena. Honek garaipen sonatua lortu zuen, frantsesei Bidasoaren beste ertzera itzuleraziz.



### II. LEZOARREN ESKAKIZUNA

1642.eko urtarrilaren 20an, herriko meza bukatu ondoren, batzarre berezi bat egin zen Lezoko San Joan Bataitzailearen parrokiako koruan.

Beste zenbait pertsonaia printzipalez gain parrokiako benefiziatuak, bikarioa barne, eta herriko agintariak bildu ziren bertan. Cristobal de Zumarristak, hots, Lezoko elizetako maiordomoak, eskribauaren lumatik hitzez hitz jaso dudan ondorengo azalpena egin zuen guztien aurrean: *"que el excelentísimo señor almirante de Castilla al tiempo que vino por capitán general del ejército de Cantabria a la expulsión del ejército de Francia que entró en esta provincia de Guipúzcoa el año pasado de mil y seiscientos y treinta y ocho y socorro de la plaza de Fuenterrabía, por la victoria que alcanzó mediante la intercesión de el Santo Cristo desde dicho lugar, ofreció para su santuario quinientos escudos o ducados de limosna. Y porque después acá Su Excelencia había andado ocupado y sus muchos negocios y cargos, no había tenido lugar de mandar pagar la dicha limosna, y también los vecinos desde dicho lugar, con las ocasiones de las presentes guerras, no habían acudido a supli-*





carle por la paga. Y que ahora tenía noticia se halla en el Reino de Sicilia, por su virrey, y más desembarazado”.

Honela, entzundakoz luze hitz egin ondoren, aho batez erabaki sendoa hartu zuten dirutza lehenbailehen eskuratu asmoz: *“que en nombre de todos los dichos señores se le haga memoria a Su Excelencia suplicándole vivamente el cumplimiento de la oferta que hizo, rindiéndole muchas gracias y representándole las muchas necesidades que la iglesia del Santo Cristo tiene”*.

Era beran, aurrez apaturiko maiordomoaren esku utzi zuten Siziliako erretorde berriari gutuna idatzi eta bidaltzea.

LANDER ZURUTUZA